

ARTE


IRARKOLA ETA ARTISTAK EUSKAL HERRIAN

Juan Ramón Jiménez: Antología Industria Gráfica Valverde San Sebastián 1971

Azken mende bi honetan, imprimatzeko arteak indar eta izen handia hartu du Euskal Herrian. Gipuzkoako Industria-Bulegora jotzea besterik ez dugu. Izan ere, imprimatzeko alor honetan arreta eta aurrerapenak, azkarrekin ez badira ere, harrigarriak dira. Estatu Batuetan eta Alemanian. Urte askotan ari da Errusiako Gobernuak aztertzen zer izan litekeen imprenta eta arteak entzun-ikus bideekin bat eginez gero, egun halako indarra dutelarik. Astiro, imprimatzeko arteak, marrazkiak, kartelak

dutezko gauzak dira. Bizitzaren egituratze eta egokitzea planteatzen da koloreaz. Munduko Bigarren Gerrateaz geroz, Leger-ek «polikroma eraso» deritzan hori dugu aurrean. «Koloreak —zion Léger-ek— dena kutsatua du. Hormak, karreterak... kutsatu ditu. Ireki leihoa eta publizidade iskanbilatsua zatiak sartzen zaizkizu, gezi bat bezala... Kolore eta hotsaren eromena... Gure burua defenditzeko garaia dugu.

Babesa ez dago ihes egitean, ene ustez, dei hoi «kaos» beldurgarria menderatzen baizik. Garrioren obratan koloreak eraso egiten du. Baina menderaturik darduka, eta honen gilitza zera da:



SOTA-ren lan bat.

eta zabalkunde-liburuskak bere toki iristen dihardute «mas media» delakoaren barnean.

Oraingo hontan, 1971teko Eguberri Industria Gráfica Valverde delakoak imprimatu zuten Juan Ramón Jiménez-en antologia nahi nuke ihardun. Urteetan zehar, berea den zerbaiz itsatsi nahi dio Valverde arte honi —komertzioa bere mugak ipintzen dituelarik ere—, eta oraingoan osoki iritsi du.

Juan Ramón Jiménez-ek egin obraren lapurpen labor bat da liburu, hura ongi asko ezagutzen duen Pablo Bilbaok egin; baina industria hortan diharduten eta poemak apaindu dituzten artisten «musak» axatzeko aski izan den laborpena.

Jose Antonio Sota, Felix Garrido, Antonio Salvador eta Juan Torregaray izan dira andaluz poeta, Nobel Saria den horren poema eta hizluzko testuak apaindu dituztenak. Ezagunak dira izen hauek kartel eta euskal liburuaren alorrean, hauek, batera egiten duten industria-lanarekin batera, artist-aburu berezi bat ematen dute eta, oraingoan, poetik testu zoragarri batzuen apaindurak eman dizkigute.

Denetan zaharrena eta Studio Valverdeko zuzendaria den Sota, kubismo baten barruan ari da mundu indartsu eta soil baten sortzen. Felix Garrido, lau publizistatik hoberena ene ustez, eta peninsulan den hoberenetakoa, modernoa eta zientifikoa da bere arte-lanean, eta oso egoki aipatzen du. Garridoren ustez, kolore eta dibujoa norberaren boro-

espazial kubismo intelektualak. Honen apaingarria adimenez egin da, fina, ez da agian, herrikoia bainan bai estetikatik sakonagoa. Begierantzak gozoki bat da honen obra, volumenaz eta koloreaz jokaturik. Poesia hutsa, Jimenezen lana bezala. Kolorea menderatua eta neurritua, Legere nahi bezala. Askok ez bezala, ezagutzen eta aztertzen du Garridok kolore indartsu eta ez tzen kontrastea, kolore sendo eta arinen zerikusia. Aburu modernu eta ausarta du honen eta haueri esker zer esana frango eman dezake «afitxe» eta zabalkunde-dibujoaren alorrean.

Salvadorek, berriz, dibujalari klasiko eta expresionista izanik, marrazki adierazkor eta biziak ematen dizkigu, hala bere Sorginak eta bere Haur morea.

Torregarayk, azkenik —hau du gure lau marrazkilarietan gaitea— lau marrazki garden eta finak ematen dizkigu, Juan Ramonen poesia airezko eta goiaren arabera. Bere kolore-gama eta gardentasunak oso batera datoz euskal pinturaren tradizioarekin eta orobat Euskal Pinturaren Eskolakin, ez baitu alferriki ikasi Aszenzio Martiaren gaitik. Bikaina poetaren erretratopaisajea eta antologiaren hasieran dagoen emakume biluzia.

Horra, ba, liburu, Gipuzkoan ditugun inprimatze-tekniaken goi-maila eta hontan ditugun publizista onen lekuko.

Eta artistei gagozkielarik, bada garaia etxean duginaz ballatezko diska—, aldizkari eta liburu

Marxismoa Zahartu Egin da

ZER EGIN?

Ehun urte haundi bait du gelaen.

Marxismoa atzera geratu den inpresioak zientzia guztietan menderatzen gaitu:

—Natur-jakintsuek materialismo ortodosoarekin ez dakite zer hasi zientzia zehatzetan. B. Bakaikoak erakutsi digu hau, Dialektikaren ordeztu metafisika izenburuko artikulu batetan (ik. Anaitsuna, 227). Engels eta Lenin, informazio ona eduki arren, dileteak ziren natur jakintzetan. Gainera, harrez gerozko aurrerapenak berebizikoak izan dira, Havemann atomo-fisikari marxistak atzerapen hau aspaldi salatu zuen. Monod biologoak zientismo animista deritza marxismoari.

—Soziologian akabatu da kritikoek «la fascinación de los sistemas sociológicos omnicomprensivos, basados en una filosofía determinista» deritzatena. Oinarri ideologikoak gaitu ditu eta abiaburu benetan zientifikoen gainean erakiti nahi da soziologia gaur, alortan banatu eta alor bakoitzari dagokion metodoa erabiliz. Literatur eta arte soziologia hartzen badugu, adibidez:

—Francastelek printzipioen finkapen berrira egin digu.

—Hauseren azterketa soziologikoa, praktisi gisa, A. Zelaiek Anaitsuna-n (222) aurkitzea dago. «Historia social de la literatura y el arte» ta beste zenbait liburu ezagunen autore ungariar hau, artearen soziologia iaioa, Marxen kritiko zorrotza da orobat.

—Etnologian, linguistikan, sikologia eta sikoanalisan marxismoari apenas aipatu ere egin ditek. Morgen aspaldi superatuta dago, noski (ta Engelsk Morgan kopiatzen dio). Batzutan marxismoak zientzia horiekin hartukizunik batere ez du.

—Filosofiako eskola berrienen marxismoari metafisiko deritazte. Txillardegik erakutsita dago gaurko mundu ikuskerak eta filosofiak beste bide batzu daramazkitela.

—Ekonomian ere badago haizirik. Sozialismoaren frogantzak damazkizun M. Dobb, adibidez. O. Sik eta txekiarren antzeko «errebisionista» da; merkatuaren, benetaz materialen (irabazi ezberdinen) aldezkari, beraz.

Marxismoa denboraren aldean atzera geratu den inpresioak menderatzen gaitu, orobat, mundu hontako problemai begiratzen diegunean ere: nahitazko deklarazioaren zeren gauza askok ez du gertatu nahi, eta duela berrogei urte imposable deklaratuak beste hainbeste gertatu egin da: Estatu sozialisten arteko nahiz barneko gorabeheretan.

Mendebaleko Alderdi Komunista haundienek ere ez dute lotu langileriarekin identifikatzea (Carriello). Nahiko konterbakor eta «ordenuko Alderdi» bilakatu dira. Gizarde aldakuntzen parean atzera gelditu direla ematen du (Marcuse, Gorz).

Nazio arteko problemetan berdin: Hirugarren Mundu gizaieren askatasuna marxisten hartukizunik gabe burutu da, digu P. Vranicki marxistak. Askotan marxisten kontra ere bai. Batzutan marxisten arteko burruka artean, eta burgesek eginda (Bangla Desh). Gure nazio arazoa ulertzeko marxismoaren gaitasun falta teorikoa Garatek ongi erakutsi du. Praktiko egunoro ikusten da.

GARATE ETA LARRESORO

Garateren Marx eta Nazioa eta Larresororen Hizkuntza ta Pentsakera, biak marxismoa kritikatu dituzkigu. Marxismo ortodosoaren kritika, lehenik ere ugarria, ugarriagozera etorri dira. Behin-behinean behintzat marxismo ortodoso bakarrik kritikatzeko dutela kontu egingo dugu, eta ez marxismo bera, erabatean.

Bi kritikaok, nolahi ere, elkarren osagarri dira, eta ez dute marxismoaren ertzen bat, eskainaren bat jotzen, erdi-erdia balizik.

Marxek ez du nazio arazoa ulertu (Garate). Arrazoiak —sikologikoak aparte— hauk lirake: funtsezkoena Marxen kondaira bururapena. Ta honekin batera: Marxen sistimako arrazionalismoa eta utopismoa.

Txillardegik, berriz, kondaira konzeptu horrexen kritika egin digu, mitologiko agertaraziz. Zer egin?

Kritikaok denak zientziarekin eskuz-esku datoz, eta haiekin konfrontatu beharra dago. Zenbaitak, nire lagun marxista batek bezala, ez dituzte «kanpotik» omen datozen marxismoaren kritikak aintzatuak hartu nahi. Baina horrek ez du kritikaren zuzentasunari egiztazite bat gehiago eman besterik egiten. Gutxi duela esan berri du Paulo VI-gnak, fedea harritik bakarrik konpreni ditezakeela. Paulo VI-gnaren arrazoiak berbera da nire lagun marxistarena. Diferentzia batekin: lagun honek fedearantz bezalakoxe «eskubideak» zientzia omen den bere teoriarentzat eskatzen dituela...

Marxismoa, lehenik, fede bezala sartu zen: eta horrela marxismoa ezagutu baino gehiago egin da Marxen izena oharatu. Halabaina dagoeneko kritika ere sortu da. Eta, orokarki behintzat, marxismoaren azpitik irtetzen hasi geran

eta marxismoari gaina hartzen ari geran seinala iruditzen zait hori.

Marxismoaren gain-hartze honek, zenbait jende, marxismoari adio egitera eramango du. Hala-koek berek ikusiko dute nora jo. Baina beste zenbait marxismoa maila berri batetara altxatzeko premia ikusaraziko dio: teoria marxista moderno baten premia.

Hortarako ahaleginak mundu guztian nabarmenak dira jadanik, eta ez dadukagu atzera begira egotetik.

ZER EGIN?

Lehenengo, marxismo modernoren problema tratatzeko, bere marko benetakoetan ibili behar da: sozialismoaren teoria moderno baten haizua da hori. Honen barnean bakarrik marxismoarena, haren espezifikapen moduan. Marxismoa sozialismoaren tradizioaren parte bat baiz da.

Gero: premiari antzeman diot askok bapateko soluzio garbi eta jakina nahi luke. Marxismo modernoa nolako izan ditekian galderaren erantzun zehatz eta labor bat. Baina hori ez da posible. Ta teorien laboratorioan horrelako zerbaiz eskuratu ahal izango balitz ere, teorikaria hutsa izango litake.

Eta hirugarren (aurrekoarekin batera): batzuek minik gabeko operazio bat izan dadila eguneratze hori, nahi lukete. Autokritikaren —edo marxismoaren kritika— bildur dira, jendea nahastu egiten omen duela-ta. Eta halaxe izango da. Baina dogmatikaren seinala da hori, eta dogmatikaren nahastea, halakoekin egin ditekian gutxienean da, dogmatikaren beren erurririk gabe erori baziren ere.

Marxismo modernoa egin eginez bakarrik joan gintezke, gehiago eskatzerik ez dago. Hortarako nahitazko presuportu, fedekeriak txikitzea da: bestela ez da arrazoiak kritikorik posible. Eta gero, ekinza hau alde bitatik eraman behar da: praktikotik eta teorikotik, biok banatu gabe.

Eginahal teorikoetan dabilenaren ibilia, nahitaz, krisi baten historia garrantza bakarrik izan ditek. Soluziorik aurkitu arte ez dago beste erremediorik.

Orain, egingizun honen lehenengo epean elkarren antzeko osagarri diren bi egiteko dago: informazioa eta kritika.

Jose Azurmendi

IRAMAN - EKARRI rako
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSIAIOAK
ERRI GUZTIARAKO
Urrutirikafak: 421308 - 427766
Iparaguirre, 8 - DONOSTIA

JOSTUNDEGIA **MODISTEGIA**
GARATE
Urbieta, 66 **DONOSTIA**
EDORTA KORTADI